



Ayuntamiento de BERRIOPLANO
BERRIOBEITIKO Udala
(Navarra – Nafarroa)

**EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOA: 2016/2017
IKASTURTEA
(2016ko uztailetik 2017ko ekainera egindako ikastaroak)**

Atarikoak.

Berriobeitiko Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, euskara ikastea sustatzeko jarduerak bultzatu nahi ditu eta, hortaz, ikasketa horien gastuak finantzatuko ditu, hein batean.

Horiek horrela, Berriobeitiko Udalak, diru-laguntzak emanen dizkie, 2016ko uztailaren 1etik eta 2017ko ekainaren 30 bitartean euskara ikasteko ikastaroak egiten dituztenei.

Aurrekontua.

2017ko deialdi honek gehienez ere 5.000 euroko diru-izendapena izanen du aurrekontuetan, eta Udal aurrekontuko 1 3350 48001 kontu-saila (Bizilagunendako Euskara Ikasteko Laguntzak) erabiliko da horretarako. Zenbatekoa horiek bizilagun bakoitzari dagozkion diru-laguntzak kalkulatu ondoren doituko dira, kontabilitatean.

Baldintzak.

Deialdi honetan jasotako diru-laguntzak Berriobeitiko Udalaren 21. Ordenantza Fiskalean (N.A.O. 12. zen. 2013ko urtarrilaren 18koa) agindutakaren arabera arautuko dira. Ordenantza honeta diru-laguntza hauek nola emanen diren arautzen da.

Eskatzeko epea.

Eskaerak Udalaren erregistroan aurkeztuko dira, honako epe honetan: 2017ko ekainaren 1etik uztailaren 5era arte.

Epe hori ezin da luzatu eta ez da eskaerarik onartuko epetik kanpo.

Aurkeztu beharreko agiriak.

Aurkeztu beharreko agiriak, hau arautzen duen Ordenantzan ezarritakoa izanen da.

Eskatutako gainontzeko agiriekin batera, ikasleak berezko eskabidea aurkeztu beharko du, I. eranskinaren eredia harturik.

Agiri guztiak jatorrizkoak izanen dira edo Udalak egiaztatuak.

Eskatzaileen datuak tratatuko dira Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

Eskaeren gaineko ebazpena eta ordainketa.

Ebazpena eta ordainketa, hau arautzen duen Ordenantzan ezarritako baldintzen arabera egingen da.